AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5411

1643/2011 EBAZPENA, urriaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Elena Baylin Zaldua andreak, berak hala eskatuta, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 22ko 5002/2009 Ebazpenaren bidez, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko zuzendari gerente zuzendari izendatu zen Elena Baylin Zaldua andrea.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek ondokoa

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Elena Baylin Zaldua andrea Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko urriaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesatuari eta Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.